

PLAN ESTRATEGIKOA 2017-2024*

* Plan Estrategikoa 2017-2022 2024 urtera arte luzatzea erabaki zuen Zuzendaritza Batzordeak 2021eko abenduaren 13an bilduta.

Sejtem

1.- XEDEA

Askotariko pertsonak gara, konprometituak, garapenerako lankidetzaz, sentsibilizazio eta hezkuntzan diharduen irabazi-asmorik gabeko Euskadiko GKE batean elkartutakoak. Hala, ikuspegi feminista, horizontal, parte-hartezko, desazkundezale eta koherente batetik, bizitza erdigunean jartzen dugu eta proposamenak eratzten ditugu kontsumo¹ kritiko, arduratsu eta eraldatzaile baten inguruan, pertsona, herri eta kulturen arteko harremanetan giza eskubide indibidual eta kolektiboak nahiz naturarekiko errespetua nagusi diren mundu bat eraikitzea ahalbidetzeko proposamenak.

Ikerketa, salaketa, alternatiben egituraketa, prestakuntza, herritarren mobilizazioa eta nazioarteko lankidetzaz direla medio, gizarteaz zein politikan eragiten dugu, honako hauek bultzatzeko:

Bidezko merkataritza eta elikadura-burujabetza.

Finantza etikoak.

Ehunkien sektore deslokalizatuan lan-eskubideak errespetatzea.

Kontsumoan indarkeria matxistak desagerraraztea.

Xede feminista edo generoko kuestionamenduak dauzkaten antolakundeak nahiz aniztasun sexualak sustatzen dituzten kolektiboak indartzea.

Kontsumoaren bidez aniztasun funtzionaletan lagungarriak diren estrategiak.

Gure metodologia antolakunde-ikaskuntza², lankidetzaz ekitatiboan eta malgutasunean oinarritzen da, sareko lan baten testuinguruan, betiere, printzipio, balio eta helburu berak partekatutako beste erakunde aliatu batzuekin. Eraitzen logikaren aurrean, jokabide-aldaketan aldetik izaten ditugun lorpenak aztertuz ebaluatzen dugu geure eginkizuna, aldaketa pertsonalei, antolakundeak izandako aldaketei zein antolakunde arteko harremanetan gertatutakoei begiraturik.

Euskadikoaz gain, Estatu Espainoleko, Europako, Ekuadorreko, Kolonbiako, El Salvadorreko, Guatemalako, Chiapaseko eta zenbait herrialde arropa-ekoizletako beste kolektibo eta populazio batzuekin aliantzan egiten dugu geure lanaren zati handi bat. Sare ugarian parte hartzen dugu, eta haietako batzuetan SETEMek berak du lidergoa.

Antolakunde-barruan, aldeztu dugun eredu-politikoarekiko koherentziaz harremanak izan, antolatu eta lan egin nahi dugu (eta horixe lortzeko ahalegintzen gara), bereziki pertsonen kudeaketa horizontal eta ez-patriarkalari eta antolakundearen kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaileari dagokienez.

Zeri esaten diogu antolakundearen kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailea? Antolakunde gisa egiten dugun apustu bat da, kontsumitzen ditugun ondasun eta zerbitzuen aldetik, tokikoa, bidezko merkataritza, ekologikoa, finantza etikoak, ekonomia sozial eta solidarioa, merkatu soziala, energia berriztagarriak, garraio publikoa, kontsumo neurritsua, berrerabilpena... aintzat hartzeko.

¹ Kontsumoaz ari garela, ekoizpenaren arloa ere barne hartzen dugu, txanpon beraren bi aldeak, alegia. Hain zuzen ere, SETEMek bere jardunaren zati handi bat ekoizpen-baldintzetan zuzeneko eragina izateko baliatzen du; esaterako, nekazaritzako ekoizleei edo ehungintza-enpresetako emakume langileei lagunduz.

² Antolakunde-ikaskuntza prestakuntza eta gogoeta kolektiboko prozesutzat hartzen dugu. Prozesu hori bai barnekoa, bai gure harreman-inguruneke beste entitate eta pertsona batzuekin egitekoa da, eta antolakundearen politika eta praktiketan aldaketak eragiten ditu.

2.- BALIOAK

Gure apustu estrategikoaren abiapuntua definizio politiko bat da, balio feministak, bizitzaren jasangarritasuna, aniztasunak eta sorkuntza kolektibo eta horizontala ardaztat dituenak. Berez, printzipio horiek balio-marko oso bat barne hartzen dute, SETEMi zentzua eta horizontea ematen dizkiona, haren egiteko, funtzionatzeko, harremanak ezartzeko modua blaitzen duena, banaka zein kolektiboki. Ondoren egiten dugun deskribapena, hortaz, marko politikoaren eranskintzat hartu behar da, edo, hobeki, haren funtsaren zatitzat.

Koherentzia. Gure baliabideen, pertsonen eta beste erakunde batzuekin ditugun harremanen kudeaketak bat etorri behar du adierazita dauzkagun printzipioekin.

Aniztasuna. Aniztasunek (kulturala, etnikoa, linguistikoa, sexuala, ideologikoa, funtzionala, bioaniztasuna...) aberastu eta osatu egiten dituzte gure bizitzak, giza eskubideetan oinarrituriko errespetu eta ekitatezko testuinguru batean.

Espiritu kritikoa. Etengabe berrikusten ditugu geure pentsatzeko, izateko eta jokatzeko moduak, elkarrizketa ezarriz gure ingurune mugimenduekin, haien ideia eta proposamenekin.

Parte-hartze horizontala / sareko lana. Horizontaltasuna oinarri harturik, kolektiboki eraikitzen dugu, garena eta izan nahi duguna besteek direnarekin eta izan nahi dutenarekin uztartuz.

Elkartasuna, ekitatea eta koardura. Alde guztientzat aberasgarria den truke ekitatibo bat, alde horiek guztiak zuzenean inplikatzeko direla, pertsonen eta herrien duintasuna sustatzera eta bidegabekeriak desagerraraztera bideratutakoa.

Zoriontasunerako eskubidea. Egiten dugun guztitik ezerk ez luke zentzurik azken helburutzat ez balu zoriontsu izateko eskubidea posible egitea. Horregatik, zenbait printzipioen balioa nabarmentzen dugu, hala nola plazerarena eta ospakizunarena, halakoek gure egunerokoan egon behar dutelarik.

Sorkuntza aktiboa ("kreatibitatea"). Aurrez ezarritako mugak gainditzen ditugu, pertsona guztiok barne hartzen gaituzten alternatibak eraikitzeko.

Gardentasuna. Dokumentazio publikoa, kuantitatiboa zein kualitatiboa, jartzen dugu eskuragarri, gardentasuna bermatzeko bai gure jardueren inguruan, bai gure baliabideen kudeaketaren inguruan.

3.- GURE IKUSPEGI POLITIKOA (ZEHARKAKO ILDOAK)

SETEMen ikuspegi politikoa gure plangintza estrategiko guztian zehar hedatzen da, eta proposamen irekia da, etengabeko eraikuntza kolektiboan dagoena. Eraldaketa sozialerako dugun ereduak lehentasunez arlo kulturalean jarduteko apustua egiten du, hau da, planetan bizi diren giza taldeen jokabide eta egitura sozial, politiko eta ekonomikoak moldatzen dituzten jarrera, balio eta arauetan.

SETEMen aldezen dugun kultura-kontzeptuak arbuia egiten du egungo gizarte kontsumista, uniformizatzaile eta zentralizatzailearen homogeneizazioa, eta aniztasun kulturalaren alde egiten du, azken horrek bide ematen baitu ugaritasuna egon dadin pentsamenduen, gustuen, izateko nahiz munduan egoteko moduen aldetik; naturarekin eta beste izaki batzuekin –gizakiak izan zein bestelakoak izan– errespetuz harremanetan egoteko moduen aldetik.

Ahaztu gabe aniztasun kulturalak giza eskubideetan dituela, aldi berean, bere babes eta bere muga. Alde batetik, eskubide kulturalak giza eskubideen artean daude, eta pertsonen askatasunen eta duintasunaren berme dira. Beste aldetik, aniztasun kulturala indartu behar da abiapuntutzat hartuz tradizioek ez dutela zilegi bizitzari kalterik eragitea, bizitza osotasun integraltzat harturik.

Ildo horretan, giza eskubideek SETEMen eta gure erakunde aliatuen eraldaketa-proposamenei euskarria eta legitimitasuna ematen dizkien markoa eratzen dute, eta, era berean, proposamen horiek beti gorde behar dituzten mugak ere finkatzen dituzte.

3.1. SETEM antolakunde feminista bat da

Hasieratik izan da SETEMen desberdintasunezko genero-harremani buruzko debatea. Hala ere, diagnostiko bat eta ekitatearen aldeko plan bat –gaur egun gauzatzen ari dena– burutu izana gure gogoeta eta konpromisoa sendotu dituen froga-harria izan da. Unea iritsi da, non geure buruari diotsogun: “egin nahi duguna feminista da, eta gu konturatu gabe”.

Hala, bada, sistema heteropatriarkala kuestionatzen dugu, eta gure egiten dugu teoria feministek botere-harremanen gainean duten begirada kritikoa, botere-harreman horiek (gizonen eta emakumeen artekoak bakarrik ez) sistema patriarkal heteronormatiboak inposaturiko generoko sexu-identitateen ondorio izanik; sistema horrek, horrela, bizi-proiektuak askatasunez eta duintasunez aurrera eramatea galarazten du.

Sistema binaristaren aurrean (gizona eta emakumea), sexu- eta genero-identitateen aniztasuna baieztatzen dugu. Identitate guztien arteko ekitatea –bai eta, boterea eta eskubideak erabiltzean zein aukerak izatean, oreka eta horizontaltasuna ere– bermatzearen eta bultzatzearen alde egiten dugu. Bizia errealizazio integralean (bizitza osotasuntzat hartuz: gizakiak, animaliak, natura) zentratutako justizia-ideal bat aldarrikatzen dugu, etorkizuneko belaunaldiak arriskuan jarri gabe, eta izaki guztien, oro har, beharizan espiritual, fisiko eta psikologikoei erantzunez, haien sexu- edo genero-identitatea edozein izanik ere.

Laburbilduz, nahi dugu feminismoak zeharka gaitzan, barrurantz eta kanporantz. Hau da, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen gure ikuspegitik ekarpena egin nahi dugu mugimendu eta agenda feministara, balio feministetan oinarrituriko barne-logika bat erabiliz, funtzionamenduan, egituretan zein harremanetan.

3.2. SETEM bizitza erdigunean jartzen duen antolakunde bat da

Bizitza erdigunean jartzeak bizitzak (gure bizitzak) zaintzea (eta autozaintzea) dakar berekin –bizitza merezi duten bizitzak izan daitezen– eta, halaber, eskura ditugun baliabideak zorientasunerako eskubidea gauzatzeko antolatzea. Zainketak, afektuak eta emozioak aitortu eta balioetsi egin behar ditugu, halakoen kudeaketa koarduraz hartuta.

Horrenbestez, ikuspuntua aldatzeko, lehentasunak aldatzeko, proposatzen dugu. Bizi-estiloaren aldaketa, alegia. Eduki ordez, izatea aldarrikatzen dugu. Egungo eta etorkizuneko belaunaldiekin arduratsua den desazkundera, planetaren ahalbideekin bateraezina den mugagabeko hazkunderaren aurrean. Aberastasunaren banaketa ekitatiboa, metaketaren aurrean. Apustu honen

oinarria da errespetuzkoak, ekitatiboak eta solidarioak diren harreman eta praktika politiko, ekonomiko, sozial eta kultural batzuk eraikitzea pertsonen, naturaren eta animalien artean.

Halako eredu batean, indibidualismoa baztertzen dugu, eta pertsona bakoitzak gainerakoekiko eta naturarekiko harremanean duen garrantzia nabarmentzen, aniztasuna bermatzen duen eraikuntza kolektiboko prozesu batean. Bizitza mantentzea bermatzen duen prozesu batean, hain zuzen ere.

3.3. SETEM aniztasunak defendatzen dituen antolakunde bat da

Homogeneizazioaren eta haren asmo politikoaren aurkako erresistentzia-ekintza batean, ikuspegi plural eta barne-hartzaileen alde egiten dugu aniztasunari dagokionez, bai arlo kultural, etniko, linguistiko, sexual eta funtzionalen aldetik, bai bioaniztasunaren aldetik. Puzzle bat eratzen dugu, giza eskubideak markotzat hartuta, non pertsona guztiak lekua izan behar duten, nork bere identitate, beharrian eta ekarpenekin.

3.4. SETEM antolakunde horizontal bat da, parte-hartzezkoa eta sarean eragiten duena

Bizitza kudeatzeko logika hierarkiko eta autoritarioak eraldatzeko, kolektiboki eraiki behar da, horizontaltasuna, parte-hartze ekitatiboa eta inklusiboa, autonomia eta interdependentzia baliatuz. Era berean, beste batzuekin saretuta dauden pertsonen osaturiko erakunde bat izan beharra dago: garena eta izan nahi duguna besteek direnarekin eta izan nahi dutenarekin uztartzen dugu. Eta horrelaxe eragiten dugu guztiok batera.

Jokatzeko modu horrek berekin dakar gure lehentasun politikoek gutako bakoitzaren azaletik pasatu beharra, banakako ekintzen mugek eragin kolektiboko bideak beharrezko bihurtzen dituztela jakinda, maila tokikoenetik hasi eta maila globaleneraino, pertsonen, ekimen komunitarioen eta/edo nazioarteko sareen arteko "gurpil onuragarriak" garatu beharra dagoela eragin erreala lortzeko.

4.- ZER EGITEN DUGUN (ILDO SEKTORIALAK)

SETEMek irizpide etiko, sozial eta kulturaletan nahiz ingurumen-irizpideetan oinarrituriko ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-eredu batzuk bultzatzen ditu. Halako ereduak, hain zuzen, ekonomia solidarioak eraikitzea ahalbidetzen dute, pertsonak (askotarikoak) erdigunean dutenak, beren ingurune naturalekiko harreman harmoniatsuan. Esparru horretan, indar hartzen du kontsumo kritikoa, arduratsu eta eraldatzaile baten ideiak (KKAE).

KKAEEK sustatzen du loturak eta harremanak zaintzen dituzten identitate berri batzuk eraiki daitezen, logika kontsumistak sortzen dituen indibidualismoari eta hondamenari kontrajarrita. Eduki ordez, izatearen balioa nabarmentzen duen proposamen politikoa bat da.

Errotiko aldaketa bat sustatze aldera, KKAEEK, lehenik eta behin, kontsumoaren murrizketa orokor baten beharra azpimarratzen du, eta, bigarrenik, bidezko harreman sozialetan eta ingurune naturalarekiko errespetuan oinarrituz lorturiko produktuak kontsumitzeko beharra (elikadura-burujabetzan oinarritutako ekoizpen ekologikoa, bidezko merkataritza, banku eta aseguru etikoak...).

Ikuspuntu horrek merkatu monetarizatu bateko ekonomia-jardueratzat hartzen den kontsumoa gaitzen du, eta bizitza on baterako ekarpen immaterialak nabarmentzen ditu. Pertsonak herritartzat jotzen ditu, ez kontsumitzaile hustzat.

KKAEEK arreta berezia jartzen du indarreko sistema heteropatriarkalari eusten dioten desparekotasunetan, bai eta proposamen feministetan ere, nagusi diren balio matxistak ez berrekoizteko eta ekoizpenerako eta kontsumorako alternatibak balio feministetan oinarrituz sustatzeko.

4.1. Bidezko merkataritza eta elikadura-burujabetza

Herrialdeko eta tokiko merkatuetarako elikagaiak ekoizti, banatu eta kontsumitzeko aldeztu dugun ereduak oinarritzen da nekazaritza- eta familia-ustiategi dibertsifikatuetan, ekoizpen-sistema agroekologikoetan eta kateko eragileen arteko konfiantza eta hurbiltasunezko harremanetan. Gai batzuk, kafea eta kakaoa, besteak beste, sakon finkatuta daude gure kontsumo-ohituretan, eta, halakoak ekoizteko behar diren klima-baldintzak direla eta, ezin dira sartu merkaturatze-zirkuitu laburretan; haiek ekoizti, esportatu eta banatzeko, bada, bidezko merkataritzaren printzipioen arabeko sistema bat aldeztu dugu.

Zehazki, gure proposamena printzipio hauetan oinarritzen dugu:

Nekazarietat bidezko prezioak ziurtatu behar dira.

Lurra, ura, basoak eta naturako beste ondasun komun batzuk erabiltzeko aukera bermatu behar da, birbanaketa ekitatibo baten bidez.

Emakumeek elikagaien ekoizpenean duten rola aitortu eta sustatu egin behar da, bai eta ekoizpen-baliabideak berdintasunezko baldintzetan erabiltzeko aukera izan dezaten bultzatu ere..

Lehentasuna eman behar zaio komunitateak ekoizpen-baliabideen gaineko kontrola izateari.

Elikaduraren oinarri diren haziak babestu behar dira, nekazariak askatasunez trukatu eta erabiltzeko; horrek bizia ez patentatzea esan nahi du.

Genetikoki eraldatutako laboreen gaineko luzamendu bat onartu behar da, landare eta animalien funtsezko aniztasun genetikoa kutsatzea eragiten baitute.

Inbertsio publikoa gehitu behar da, familia eta komunitateen ekoizpen-jarduera sendotzeko.

4.2. Finantza etikoak

Orain hamabost urte direla, SETEMek bere ahaleginen zati handi bat erabiltzen du arma-industriaren eta finantza-sektorearen arteko loturak agerian uzteko. Zailtasun handiz (ez da erreza horren inguruko informazioa lortzea, ezta zabaltzea ere), frogatu egin dugu gerraren negozioa ez litzatekeela posible izango bankuen laguntza gabe, hainbat formula gutxi-asko konplexuren bidez.

Bestalde, finantzen munduak badu zerikusia, orobat, gure gizarteetan dauden bazterkeriazko genero-harremanekin. Hain zuzen ere, banku-jarduerak sendotu egiten du –gizartea eta politika moldatzeko duen ahalmen eskergarekin– matxismoaren eta uniformetasun heterosexualaren kode nagusietan oinarritzen den sistema bat.

Hala ere, aspaldi galdu genuen banku-sektore konbentzionalak giza eskubideak eta ingurune naturala errespetatuz joko dezan lortzeko itzaropena. Aitzitik, ilusioz gainezka aritzen gara geure indarrak banka etikoko alternatibetan jartzen ditugunean, esaterako FIAREn; izan ere, hango kide gara eta ahaleginean laguntzen saiatzen gara. Xede horretan, gogoan dugu ekonomia sozial eta solidario baten eraikuntza –finantzak haren oinarri nagusietako bat direla– feminismoaren balioek zeharkatu behar dutela, hala haren erakundeen barne-funtzionamenduan eta halakoen artean ezarritako harremanak bideratzen dituzten dinamiketan, nola eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuetan.

4.3. Ehunkien sektore deslokalizatuan lan-eskubideak defendatzea.

Ehunkien sektoreko lan-baldintzak hobetzen laguntzen dugu “Arropa garbia” kanpainan parte hartuz. Kanpaina hori nazioarteko sare bat da, hainbat GGKEk, sindikatuk eta kontsumitzaile-elkartek osatutakoa, jantzigintzaren industria globaleko langileen baldintzak hobetzeko lan egiten duena. SETEMi dagokio “Arropa garbia” kanpainaren lidergoa Estatu Espainolean, eta kanpaina bera Europako beste 13 herrialdeetan dago: Alemanian, Austrian, Belgikan, Danimarkan, Frantzia, Herbehereetan, Italian, Norvegian, Erresuma Batuan, Suedian, Suitzan, Turkian eta Polonian. Gainera, mundu guztiko 200 langile-antolakunderekin baino gehiagorekin aritzen da lankidetzan.

“Arropa garbia” kanpainak lau jarduera-ildotan biltzen du bere jarduna:

- Ikerketak egitea ehunkien industriako langileen egoerari buruz, kiroleko arropa eta oinetakoen ekoizle diren herrialdeetako langile-antolakundearen sarearen laguntzarekin.
- Kontsumitzaileen kontzientziaketa eta mobilizazioa.
- Enpresen gaineko presioa.
- Kasuen salaketa.
- Ehunkien sektore deslokalizatuko langileei laguntza ematea beren eskubideak defendatzeko.

4.4. Ekoizpenaren eta kontsumoaren bidez indarkeria matxistak desagerraraztea.

Sistema patriarkala funtsezkoa da indarkeria matxistak ekoizpen eta kontsumo kapitalistan finkatzeko garaian, eta kontsumo kapitalistak eta sistema kapitalistak sistema patriarkalaren balioak betikotzen dituzte. Elkar atzeraelikatzen duten eta elkar behar duten bi makineria. Sistema kapitalistak, etekinik handiena pertsonen eta ingurumen-baliabideen esplotaziotik ateratzen dituela, sistema patriarkala aliatu gisa topatzen du bere egituraren barruko genero-desparekotasunak justifikatu eta legitimatzeko.

Hala etxeko arloan eta arlo pertsonalean nola arlo publikoan, emakumeak gauza bihurtzen dituzten hainbat indarkeria identifika ditzakegu, kontsumoa sustatzeko objektu huts bilakatzeraino. Indarkeria horiek, askotan, normalizatu egiten dira, garden bihurtzeko duten gaitasuna dela medio, eta generoko rol eta estereotipoak indartzen dituzte horrela, eta kontsumitzen duenaren osasuna bera arriskuan jartzen, emakumeena kasu honetan.

SETEM indarkeria matxisten, ekoizpen-prozesuen eta kontsumoen arteko loturak identifikatzen saiatzen da. Baina, era berean, lotura horiek kuestionatzen dituzten ereduak identifikatzea bilatzen du, lotura horiekin hautsi egiten duten eta alternatibak proposatzen dituzten ereduak, berdintasun errealerantz pausoak emate aldera.

Esentzia binaristak (gizonak / emakumeak) nagusitutako ereduan dagoen heteronormatibotasunetik kanpo geratzen diren gorputz, praktika eta desioak baztertzen dituela jakitun, SETEMek begirada zabaldu, eta berariaz aztertzen du ekoizpenak eta kontsumoak bazterketa horiek betikotzeko jokatzen duten rola, eta aniztasun sexualak erabat legitimatzen dituzten alternatiba batzuk eraikitzearen aldeko apustua egiten du.

4.5. Xede feminista edo generoko kuestionamenduak dauzkaten antolakundeak nahiz aniztasun sexualak sustatzen dituzten kolektiboak indartzea.

SETEMEk lehentasunezkoa deritza heteronormatibotasunak ezarritako mugetatik kanpo geratzen diren emakume eta pertsonak beren interesen arabera antolatzeari, beren arazo eta kezkei erantzuna ematen dieten ekintzak eta estrategiak abian jarri eta, horrela, beren ingurunean ekitate handiagorantz daramaten eraldaketak sustatzeko helburuz. Ez dugu zalantzarik egiten subjektu politiko gisa finkatzea badela berez xede bat. Hala eta guztiz ere, SETEMek beharrezkotzat du baldintza hori, erakunde gisa ekoizpen eta kontsumoko praktika inklusiboak sustatzeko dugun berariazko helburura orientatua, halako praktiken bidez aniztasun sexualak eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Ildo horretan, SETEMek bere gain hartzen du xede feminista edo generoko kuestionamenduak dauzkaten antolakundeak eta LGBTBI kolektiboaren eskubideak defendatzen dituzten taldeak antolakunde gisa indartzeko konpromisoa, baldin eta kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailea tresnatzat hartzen badute mundu bat eraikitzeko, non giza eskubide indibidual eta kolektiboak nahiz naturarekiko errespetua nagusi diren, pertsona, herri eta kulturen arteko harremanetan. Horrek ez du esan nahi antolakunde horiek beren jarduna KKAEaren arloan zentratu behar dutenik, baizik eta KKAEaren ikuspegia beren agendetan eta laneko eta funtzionamenduko praktiketan aintzat hartu behar dutela.

4.6. Ekoizpenaren eta kontsumoaren rola aniztasun funtzionalan

Gure iritzia da ekoizpenak eta kontsumoak funtsezko rola jokatzen dutela "normaltasun funtzionalaren" mugen barruan sartzen ez diren kolektiboaren bazterketa soziala bere horretan atxikitzen. Hala ere, SETEMek aurretik behar duen sakontasunez heldu ez dion azterketa- eta jarduera-eremu bat da. Izan ere, orain arte oso harreman gutxi izan dugu aniztasun funtzionalaren sektoreko erakundeekin.

Plan estrategiko honek bi helburu ezartzen ditu sektore horri dagokionez:

Lehena, gure antolakundeak eta lana irisgarri bihurtzea aniztasun funtzionala duten pertsonentzat.

Bigarrena, honako hauek lortzeko ahalmenak geuregana ditzakegun aztertzea:

- Ikerketa-ildo bat abiaraztea, ekoizpenak eta kontsumoak aniztasun funtzionala duten kolektiboaren bazterketa sozialean jokatzen duten rola aztertzeko.
- Aliantzak ezartzea aniztasun funtzionala duten herritarren eskubideen alde lan egiten duten kolektibo antolatuekin.
- KKAeko proposamen zehatzak osatzea, bazterketak desagerrarazten aurrera egiteko.
- Definitutako alternatiben inguruko eragin sozial eta politikoa izatea, aniztasun funtzionalari lotutako gizarte-sektore antolatuarekin koordinatuta.

5.- ZEIN TESTUINGURUTAN LAN EGITEN DUGUN

	SETEM-EN XEDEAN LAGUNTZEN DUTEN JOERAK	SETEM-EN XEDEA ZAILTZEN DUTEN JOERAK
HURBILEKO TESTUINGURUA	<p>Sareko lana. Teknologia berriek erraztu egiten dute. Alternatibak sustatzen dituzten mugimendu sozialen gero eta antolaketa handiagoa. Joera horrek, era berean, alternatiba horiekiko koherentzia handiagoa eskatzen digu.</p> <p>Prestakuntza, herritarren mobilizazioa, eta eragina: aldaketa-beharra igartzen da, gizarte-mugimendu berrien sorrera eta aldaketarako egoera kolektiboa bat gertatzen ari dira.</p> <p>Egungo egoeran, nazioarteko lankidetzaren sektorea ahuldurik dagoela, SETEMek lehen baino ikusgaitasun handiagoa bereganatzen du, egiten dituen proposamenen eta mobilizazioen mota dela eta.</p>	<p>GGKEen ahultzea eta gizartearekin duten lotura ere ahula izatea.</p> <p>Bazkideek edo ekarpenak egiten dituzten beste pertsona batzuek SETEMekin duten konpromiso ekonomiko txikia. Gainera, ez dago barne-politika bat pertsonen ekarpenen bidez funtsak bilatzeko (ez da transmititzen konpromiso-aukera bat delako ideia). Nolabaiteko ahalke instituzionala dago horren inguruan.</p> <p>Garapenerako lankidetzako politika publikoen araudi eta tresnek ez dute ahalbidetzen eta ez dute uzten politika horiexen helburuak bete daitezten.</p> <p>Finantzaketa publikoaren murrizketa. Garapenerako lankidetzaren norberegantze sozial eta politiko txikia. Ikerketa eta salaketarako funtsak lortzeko zailtasuna. Proiektuen mendekotasun ekonomikoa.</p> <p>Indibidualismoa.</p> <p>Agenda kolektiboan –hedabideetan, esaterako– SETEMen salatze- eta proposatze-jarduera kokatzeko zailtasuna.</p> <p>Chiapas, Guatemala, El Salvador, Ekuador, Kolonbia eta Perun sarekide ditugun antolakundeekiko urrutitasun geografikoak elkarrizketarako eta elkar topatzeko espazioak zailtzen ditu.</p>
TARTEKO TESTUINGURUA	<p>Politika-arloan, badirudi aldaketa bat bilatzeko interes handiagoa dagoela. Kontzientzia eta mobilizazio sozial handiagoak ikusten dira. Txanponaren beste aldea da errazagoa gertatzen dela lotura militantea, eta ez hain erraz lotura ekonomikoa; normalean, SETEMera hurbiltzen diren pertsonak ez dute beren burua ikusten ekarpen ekonomikoa egiten, eta, hortaz, antolakundea ekonomikoki mantentzea arazo bat da.</p> <p>Badira kontzientzia kritikoa duten pertsonak, eta polarizazio sozial eta politikoak eragiten du gehiago izan daitezten jarrera bat hartu duten pertsonak, kontzientzia kritikoa duten eta SETEMen planteamenduetatik hurbilago dauden pertsonak; aldi berean, SETEMenaren</p>	<p>Indibidualismoa.</p> <p>Motibazio-galera eta/edo desmobilizazioa gizarte zibil antolatuan, mugimendu eta antolakundeek espazio osasungarriak, ez-patriarkalak, zainketazkoak... sortzeko dituzten zailtasuna dela eta.</p> <p>Eremu politikoan aniztasunekiko erresistentzia dago, eta horrek badu isla herritarrengan ere. Jarrera eta diskurtso arrazista eta xenofoboak goraka.</p> <p>Indarkeria-testuinguruak lan egiten dugun herrialdeetan. Horren adibide argia El Salvador da. Zailtasunak sortzen dizkigu gure jarduera-ildoetako batzuetan, hala nola elkartasun-eremuetan.</p>

	<p>antzeko ildoak duten alternatiba gehiago egotea ere eragiten du (giroan dago, gehiago hitz egiten da horretaz).</p>	
<p>URRUTIKO TESTUINGURUA</p>	<p>Aliatuak egotea: pertsonak, antolakundeak, mugimenduak alternatibak bilatuz eta sortuz. Krisi multidimentsionalak (sistemikoa) argi jartzen du agerian sistemak ez duela funtzionatzen, eta aukera bat da beste alternatiba batzuk bilatzeko. Teknologia berriek, globalizazioaren testuinguruan, lanean, konexioan, eraikuntzan eta zabalkundean laguntzen dute. Mugimendu feministek SETEM ikusgai bihurtzen lagun dezakete, haiekin aliantzak ezartzen ditugun neurrian. Lan-eskubideen egoera eskasak, ekoizpen eta kontsumoko sistemaren funtzionamenduak, eta hazkundearen logikak SETEMek aurrera eramaten duen ikerketa- eta salaketa-lana elikatzen dute (AGK, esaterako). Bizitza bizitzeko modu berriak proposatzen dituzten ereduak indartzen ari dira (Ongi Bizitzea, esaterako). Proposamen horiek izaera globala hartzen dute, sistema globalizatuaren berezko arazo batzuei erantzuten dieten neurrian. Aukerako testuingurua da indarrak batzeko eta elkarrekin proposamenak artikulatzeko. Gero eta gehiago homogeneizatu dira balioak, helburuak, jokabideak... kapitalismoaren hedapenarekin batera, eta halaber gertatu da arazo sozial eta ekonomikoekin, haien kausekin nahiz alternatiben sorrerarekin. Labur esanda, jada ez da posible Iparralde/Hegoalde dikotomiaren arabera hitz egitea. Nahiz eta, SETEMen aburuz, homogeneizazioa berez fenomeno negatiboa den, erraztu egiten du jardun global koordinatu bat, eraldaketa sozialeko dinamikak bultzatzeko balia daitekeena. Gero eta zabalduago daude feminismoaren edo ekologismoaren aldeko aukerak. Zailtasuna azalean geratzeko eta aukera horietan ez sakontzeko arriskua da.</p>	<p>Eragile politiko eta ekonomikoek mugimendu sozialen diskurtsoa asimilatu eta instrumentalizatu dute. Esparru global batean tokikoaren balioa herritarrei helarazteko garaian (elikadura-burujabetzaz ari garenean, esaterako), badago arriskua diskurtsoa norberarena ("neurea") gorestera lerratzeko, baita xenofoboak izan daitezkeen desbideratzeak gertatzeko ere. Finantzaketaren eskasia eta lanaren prekarizazioa. Modu hierarkikoan, botere-harremanen arabera, egituratzeko dugun joera. Gizarte kontsumista, metaketa eta hazkunde ekonomikoa helburutzat dituelarik. Diskurtso politikoa SETEMen xedearen aurka joan ohi da: "hazkunde ekonomikoaren beharra". Hazkundearen, metaketaren eta pribatizazioaren logika. Krisi-testuinguruan, beldurrean oinarrituriko mezuak bultzatu dira, jarrera "errebeldeak" geldiarazteko eta hartu diren neurri politiko eta ekonomikoekin men egitea sustatzeko. Homogeneizazio globalak aniztasunak zailtzen ditu. Trebakuntza gutxi desobedientzia zibilean. Arau-esparrua ez ezagutzea edo ezagutzeko kezka eta interes urria. Lan-baldintzei buruzko nazioarteko araudia ("Arropa Garbia" kanpainari dagokionez).</p>

6.- NOREKIN LAN EGITEN DUGUN (SUBJEKTUAK)

Harremana badugun edo plan estrategikoaren iraunaldian harremana izango dugun subjektuak identifikatzen ditugu:

Desazkundearen arloko subjektuak: Desazkundera (Bilbo).

Feminismoak: María de Maeztu Forum Feminista (Vitoria-Gasteiz), Emakumeen Etxea (Donostia), Marienea (Basauri), Ermuko Emakumeen Topalekua, Vitoria-Gasteizko Jabekuntzarako Eskola, beste ahalduntze-eskola batzuk, Emakumeen Mundu Martxa, LGTBI kolektiboak (7menos20, Sukubo espazioa), beste antolakunde feminista batzuk.

Erakunde sozialak eta ikastetxeak:

- Gipuzkoa:
 - Bandabat elkarte. Zarensareko entitatea.
 - Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxea. Zarensareko entitatea.
 - Beizama Bizia. Zarensareko entitatea.
- Bizkaia:
 - Pozokoetxe. Zarensareko entitatea.
 - Margotu. Zarensareko entitatea.
 - Sagarrak. Zarensareko entitatea.
 - Emakumeak Aniztasunean. Zarensareko entitatea.
 - Hemengo eta Hango Emakumeak. Zarensareko entitatea.
 - Somorrostro Irakasgunea. Zarensareko entitatea.
 - KEM-MOC Bizkaia.
 - Ekologistak Martxan.
 - Equipare.
 - Ecuador Etxea.
- Araba:
 - Alai.
 - BioAlai.
 - Bionekazaritza.

GGKEak: Medicus Mundi Araba, Mugarik Gabe, Hegoa.

Finantza-sektorea: Fiare, Oikocredit, Coop 57, Elkarcredit, Mugarik gabeko Ekonomistak, BBVA Armarik gabe, Santander Armarik gabe, CaixaBank Armarik gabe, BankTrack.

SETEM Federazioa.

Zarensare.

Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundera eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako bidezko merkataritzako partzuergoak.

REAS Euskadi eta Merkatu Soziala.

Zentzuz Kontsumitu.

Saretuz.

Euskadiko GGKEen koordinakundera eta Zero Pobrezia Plataforma.

“Arropa garbia” kanpaina (AGK): Euskadiko AGK sarea, AGK eta Clean Clothes Campaign.

Administrazio publikoak: Europar Batasuna, AECID, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, Vitoria-Gasteizko, Bilboko, Donostiako eta Basauriko udalak.

Komunikabideak. Konbentzionalak eta alternatiboak.

Aholkularitza-enpresak: Oreka, INCYDE...

Antolakunde kideak:

- K'inal Antsetik (Chiapas). Zarensareko entitatea.
- Mujeres Transformando (El Salvador). Zarensareko entitatea.
- Fundación Redes (El Salvador). Zarensareko entitatea.
- Mujeres que Crean (Kolonbia). Zarensareko entitatea.
- Penca de Sábila (Kolonbia). Zarensareko entitatea.
- Combos (Kolonbia).
- MCCH (Ekuador).
- FEPP (Ekuador).
- Mujeres de Frente (Ekuador).
- Acción Ecológica (Ekuador).
- Asociación Femenina para el Desarrollo de Sacatepequez (AFEDES).
- Concertación por un Trabajo Digno (Erdialdeko Amerika).

Unibertsitateak: Deustuko Unibertsitatea, Hegoa.

Adituak (ikastaroak, gogoeta-prozesuak...).

Sinpatizanteak (ez dira kategoriatan sartzen oinarri sozialekoak diren pertsonak: boluntarioak, bazkideak).

Jakina, hemen aipaturako erakunde eta espazioen zerrenda hau ez da zerrenda itxi bat. Aitzitik, SETEM irekita agertzen da bere xederako estrategikoak diren aliantza eta koordinazio berriak ezartzeko.

7.- NOLA LAN EGITEN DUGUN (BARNE-ANTOLAKUNTZA)

SETEMen antolakuntza-ereduari buruzko debatea izan da ahalegin eta denbora gehien eskatu duena gogoeta estrategikoko prozesuan zehar. Talde eragilearen berariazko lantegi baten eta bi kontraste-saioren ondoren, asteburuko topaketa bat egitea erabaki zen, eta han boluntarioek eta Zuzendaritza Batzordeko zein lantalde teknikoko kideek parte hartu zuten.

Espazio horietan honako hau egiaztatu genuen:

Gertakariak aurreko plan estrategikoko organigrama ofiziala gainditu dute, eta ez die erantzuten ez gure funtzionamenduaren errealitateari, ez aldi berrirako sendotu diren planteamenduei ere.

Aurrean dugun erronka da eredu desazkandezale, horizontal eta feminista bat honako hauek batzen dituen antolakuntza batekin bateragarri egitea:

Batetik, kontratatutako lantalde tekniko zabal bat (13 lagunekoa gogoeta estrategikoa egin zen unean), lanean denbora luzea ematen duena eta gero eta espezializatuago dagoena.

Bestetik, boluntarioz osaturiko oinarri sozial bat, horizontaltasun-esparru batean, erabakiak hartzeko prozesuetan aktiboki parte hartzeko ardura duena, baina SETEMen eguneroko jardunean eta abian dauzkan ekimen ugarietan inplikatzeko aukera gutxiago dituen; ekimen horiek, hain zuzen, gero eta gehiago eskatzen dute ezagueren behararen aldetik zein izan beharreko prestasunaren aldetik.

Debatea luzea izan zen, eta azkenean ondorioztatu zen horizontaltasun-printzipioaren eskakizuna dela plan estrategiko honek bidea urra dezan SETEMen oinarri sozialaren arabera dimentsionatutako prozesuak dauzkan antolakuntza-egoera baterantz. Badaude premisa batzuk, erabaki hori praktikan jartzeko beharrezkoak iruditzen zaizkigunak:

Pertsonak eta lan-bolumena orekatu behar ditugu, boluntarioak gehituz, jarduera-bolumena murriztuz, edo bi neurriok konbinatuz.

Batzordeen eta jarduera-arloen arabeko antolakuntza klasikoaren ordez, prozesuak antolakuntza batera igarotzea aukeratzen dugu. Identifikatzen den prozesu bakoitzean behar adina pertsonak egon beharko du (boluntarioak eta/edo soldatapekoak).

Bereizi behar ditugu, batetik, jardueretan bakarrik zentratzen diren boluntarioak eta, bestetik, erabakiak hartzeko eta ordezkari aritzeko ardurak ere bere gain hartzen dituzten boluntarioak. Testuinguru horretan, ibilbideak ezarri beharra dago, ongi definituriko harrera-plan batzuekin eta barne-prestakuntzako planekin, nahi dutenek aktibismoa inplikazio estrategikoago batekin osatu ahal izan dezaten.

Premiazkoa da gure bazkideak fidelizatzeko mekanismoak abian jartzea, eta finantzaketa propioa sendotzea, prozesuei denboran zehar egonkortasuna emate aldera.

Espazio informalei balioa eman behar diegu eta sustatu behar ditugu.

Gogoeta hori abiapuntu harturik, antolakuntza-egitura berria sortu da, eta hurrengo orrialdeetan aurkezten den organigrama da haren isla.

Boluntarioek eta bazkideek elkarteari eusten dion oinarria eratzen dute. Haien adierazpen-organo gorena Batzar Nagusia da, eta han hartzen dira erabaki estrategikoak, Zuzendaritza Batzordea hautatzea barne. Batzarra elkar topatzeko, gogoeta egiteko, planifikatu, ebaluatu eta koordinatzeko zein erabakiak hartzeko espazio bizia bihurtzen da, non antolakuntza eratzen duten pertsona guztiak elkartzen diren, kontratatutako pertsonala barne, botoa emateko ahalmena izan zein ez. Horregatik, hiru hilean behingo maiztasunez bilduko da.

Zuzendaritza Batzordeak, indarreko legediak eta estatutuek emandako eginkizunaz gain, bideratze eta koordinazio orokorreko prozesuaren ardura du, eta horretarako berak hautatutako zuzendaritza baten laguntza izango du.

Antolakundearen iraunkortasunerako prozesuek SETEMen eraldatze-jarduera bideragarri egiteko behar den euskarria eratzen dute, haren printzipio eta balioekin koherentea den funtzionamendu baten barruan. Gutxieneko baldintza dira antolakuntza existitzeko. Horretarako, lau prozesu definitzen ditugu: finantzaketa (publikoa edo pribatua, finalista edo erabilera askekoa); administrazioa eta finantzak; espazio

eta gauzen mantentze-lanak (garbiketa, artxiboa, biltegia, ekipamenduen kontrola, mantentze-lan informatikoak, material suntsikorra...); eta pertsonen zainketa, bai boluntarioena, bai kontratatuena.

Behar adina prozesu definituko da, eragin, mobilizazio, prestakuntza eta eraldaketa sozialari dagokienez plan estrategiko honetan jasotako erronken norabidean aurrera egiteko. Prozesu bakoitzak bere helburuak izango ditu, eta gainerako prozesuen helburuekiko interakzioan jardungo du, antolakundearen helburu estrategiko globaletan laguntze aldera.

Prozesu orok honako baldintza hauek bete beharko ditu:

Prozesuaz arduratzen den pertsona-talde bat edukitzea: pertsona bat buru, kudeaketan diharduen lantalde bat, eta parte hartzen duten pertsona batzuk.

Prozesuaren plangintza estrategikoa definiturik edukitzea: xedea, helburuak, eta adierazleak. Prozesuek lotura izan beharko dute helburu estrategikoekin, eta helburu horietarako egiten duten ekarpena zehaztuko da.

Prozesuaren jardunaren plangintza definiturik edukitzea: prozesuaren faseak, jarduerak / ekintzak, puntu kritikoak, baliabideak, eta ardurak.

Prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema definiturik edukitzea.


Baldintza horiek ez badira betetzen, ezingo da prozesu bat abian jarri eta uko egin beharko zaio.

Azkenik, gure ustez, SETEMek antolakunde dinamiko eta sortzaile gisa sendotu behar du bere burua, eta irekita egon behar du bere inguruneak eskaintzen dituen aukeretara. Gai izan behar du testuingurua, antolakundearen funtzionamendua, eta bere jardueraren emaitzak analizatzeko. Gai izan behar du beharrezko aldaketak planteatzeko, bere xedean identifikaturiko erronkei modurik egokienean erantzun ahal izateko. Helburu horrekin, analisi, jarraipen eta ebaluazioko funtzioak izango dituen prozesu bat eratzen da. Prozesu horrek hausteko, aldatzeko eta berritzeko proposamenak bideratuko ditu.

Lurraldeetan egoteari dagokionez, SETEMek Vitoria-Gasteizko, Bilboko eta Donostiako egoitzak mantenduko ditu.

Urtero, SETEMek Urteko Plan Operatibo bat osatuko du, eta plan horri aldizkako jarraipen bat zein azken ebaluazio bat egin beharko zaizkio.

Setem



8.- HELBURU ESTRATEGIKOAK (PLANAREN ZEHAZTAPENA)

1. Helburu estrategikoa. Gizartean eta politikan eragina izatea

1.1. SETEMek desberdintasun eta bidegabekeriazko errealitateak salatzen ditu, kontsumoaren ikerketa kritiko eta propositiboaren bidez, ikuspegi feminista eta desazkundezaletik. Salaketaren helburua da, sorkuntza aktiboko metodologia bat ("kreaktibo") baliatuz, sentsibilizatzea eta espiritu kritikoa eta desadostasun soziala bizkortzea, aldaketak sortzeko eta alternatibak indartzeko abiapuntu gisa.

1.1.1. adierazlea. Geure esperientziatik, KKAEn ikuspegi feminista bermatzeko gidak sortzen ditugu.

1.1.2. adierazlea. SETEMek, parte hartzen dugun sareek edo beste erakunde aliatu batzuek ikerturiko praktika "onak" eta "txarrak" ikusgai bihurtzeko daitezkeen sustatzea, SETEMen komunikazio-espazio propioen bidez (web-orriak, sare sozialak...).

1.1.3. adierazlea. SETEMek sorkuntza aktiboko metodologia bat erabiltzen du, bere jardueretan hainbat diziplina artistiko gehituz. Prestakuntzak / aurkezpenak honako hauekin:

Zapalduen antzerkia.
Dokumentalak / bideoak / film laburrak.
Clown-antzerkia / foro-antzerkia.

...

1.1.4. adierazlea. Urteroko ikerketa kritiko eta propositibo bat egitea kontsumoari buruz ikuspegi feministatik. Eragin handiko kanpainak diseinatzen dira, beste eragile batzuekin aliaturik, salaketarako sorkuntza aktiboko metodologia bat erabiliz.

Lehen urtean: 1. ikerketa.
Bigarren urtean: 1. salaketa + 2. ikerketa.
Hirugarren urtean: 2. salaketa + 3. ikerketa.

....

1.2. SETEMek ekoizpen eta kontsumo kritikoko alternatibak bultzatzen eta indartzen ditu.

1.2.1. adierazlea. SETEMek, beste erakunde aliatu batzuekin batera, parte-hartzezko berme-sistemak sustatzen ditu (konfiantza-zigiluak).

1.2.2. adierazlea. KKAeko produktu eta zerbitzuak ikusgai bihurtzeko eta saltzeko espazio propioa sortzen da.

1.2.3. adierazlea. SETEMen Urteko Plan Operatiboak jarduera-multzo bat jasotzen du KKAeko alternatibak sustatzera bideratuta (bidezko merkataritza, finantza etikoak, elikadura-burujabetza...).

1.3. SETEMek, 2018. urtean zehar, aztertu eta erabakitzen du ea estrategia bat abian jartzen duen ekoizpen eta kontsumoaren eta aniztasun funtzionalaren arteko loturari buruz, besteak beste, honako alderdi hauek barne harturik:

Ekoizpenak eta kontsumoak aniztasun funtzionala duten kolektiboen bazterketa sozialean jokatzeko duten rolarik buruzko ikerketa.
Aliantzak aniztasun funtzionala duten herritarren eskubideen alde lan egiten duten kolektibo antolatuekin.
KKAeko proposamen zehatzak osatzea, bazterketak desagerrarazten aurrera egiteko.
Definitutako alternatiben inguruko eragin sozial eta politikoa, aniztasun funtzionalari lotutako gizarte-sektore antolatuekin koordinatuta.

1.4. SETEMek kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaileari aisialdiaren ikuspuntutik heltzen dion topaketa-espazio bat sortzen/sustatzen du (kafetegia, liburu-denda, zinema, liburutegia, monologoak, antzerkia, truke-azokak, espazio-lagapena, zerga-eragozpena...). Espazio horrek hauek dakartza: finantzaketa; kontsumoko alternatibak; boluntarioak eta bazkideak; eta eragina.

1.5. SETEMek Zarensare elikatzen du eta harengandik elikatzen da, bideratzaile-rol batekin, KKAEaren inguruko kuestionamenduaren bidez, subjektuak harremanetan jarritz, efektu biderkatzailea izango duen eragin sozial eta politikoko mobilizazio baterako.

1.5.1. adierazlea. Gutxienez, urtean Zarensareren topaketa presentzial eta birtual bana, honako hauek egiteko:

Funtzionamendua planifikatzea eta berrikustea.
Gai zehatz baten inguruan gogoeta egitea.
Baterako ekintza-plan bat prestatzea.

1.5.2. adierazlea. SETEMek sustatzen du Zarensarek heldutasuna eta aitortpena lor dezan eragile eraldatzaile gisa, beste arlo batzuk gehituz, hala nola aniztasun funtzionala, sexuala, kulturala...

1.5.3. adierazlea. SETEMek sustatzen du Zarensarek (sare gisa) eragin sozial eta politikorako lan-agenda partekatu bat eduki dezan, globala/tokikoa.

1.6. SETEM da begirada feminista duen kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailean oinarritutako eraldaketarako prestakuntza-eskola. Zarensareren bidez sorturiko gogoetak prestakuntza-eskola elikatzen du eta alderantziz, eta Zarensareren helburu politikoak lortzen laguntzen du.

1.6.1. adierazlea. 2017ko lehen seihilekoan, SETEMek, Zarensareko entitateekin eta beste kolektibo aliatu batzuekin lankidetzan, uneko prestakuntza-estrategia ebaluatzen du eta prestakuntza-eskaintza berri bat diseinatzen du, 2017ko bigarren seihilekotik aurrera abian jartzen dena.

1.6.2. adierazlea. SETEMek sustatzen eta errazten du Zarensareko entitateek ikastaroen "moduluak" eman ditzaten.

1.6.3. adierazlea. SETEMek sustatzen eta errazten du Zarensareko entitateek debate eta prestakuntzako foroetan parte har dezaten.

1.6.4. adierazlea. SETEMek sustatzen eta errazten du mekanismoak sor daitezzen Zarensareko entitateetan trukeak eta pasantetzak egiteko.

1.6.5. adierazlea. Prestakuntza-eskaintzaren etengabeko berrikuspen eta ebaluazioa egiten da.

1.6.6. adierazlea. Zarensareko entitateek prestakuntza-eskaintzan parte hartzen dute eta haren zabalkundea sustatzen dute, sarea sendotzeko mekanismo gisa.

1.6.7. adierazlea. Zarensareko entitateek prestakuntza-eskaintzarako edukiak eta metodologia proposatzen dituzte.

1.7. SETEMek bere harreman estrategikoak sendotzen ditu Mexiko, El Salvador, Guatemala, Ekuador eta Kolonbiako antolakunde kideekin, eta haien bidez epe luzerako garapen-prozesuak mantentzen ditu plan honen **1. eranskinean** zehaztutako populazioekin. Halaber, 2017an Saharaz hegoaldeko Afrikako antolakunde batekin estrategia bat abiarazteko aukerak aztertuko ditu.

1.8. SETEMek, 2017ko lehen seihilekoan, komunikazio-plan bat formulatuko du, SETEMen zein bera kide den sare estrategikoen eragin sozial eta politikoko helburu estrategikoa indartzera orientaturikoa.

2. Helburu estrategikoa. SETEMentzat estrategikoak diren sareak sendotzen laguntzea.

2.1. SETEM agenda feministaren barruan dago eta agenda horretan berariazko eragina du kontsumo kritikoaren bidez.

2.1.1. adierazlea. SETEMek sustatzen du bera dagoen edo berak harremanak dituen mugimendu feministek beren barne-gogoetetan eta jendaurreko jarreretan gehi ditzaten SETEMek genero-desparekotasunen eta kontsumoaren arteko loturei buruz sustatzen dituen debate eta proposamenak.

2.2. Parte hartzen dugun sareen artean, ekonomia sozial eta solidarioarekin lotura handiago dutenek (Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundea, SETEM Federazioa, "Arropa garbia" kanpaina, Reas, Zentzuz Kontsumitu, Saretuz, finantza etikoen taldea...) ikuspegi feminista beregana dezaten bultzatzen dugu.

2.2.1. adierazlea. REAS Euskadiren diagnostikoa eta ekitatearen aldeko plana egitean SETEMek ekarpenak egin ditu.

2.2.2. adierazlea. Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundeak, SETEMek bultzatuta, zenbait ekimenetan parte hartzen du, non feminismoak bidezko merkataritzarako planteatzen dituen erronkei buruzko gogoeta sustatzen den.

2.2.3. adierazlea. SETEM Federazioak, SETEM Hego Haizeak proposatuta, berdintasun handiagoko harremanak sustatzen dituzten neurriak gehitzen ditu hurrengo plan estrategikoan.

2.2.4. adierazlea. SETEMek kontsumoaren eta genero-desparekotasunen arteko loturei buruzko gogoetara erakarri ditu parte hartzen dugun ekonomia sozialari lotutako sareak.

2.3. Parte hartzen dugun sareen artean, ekonomia sozial eta solidarioarekin berariazko lotura ez duten sareek beren eragin sozial eta politikoan kontsumo kritikoa, arduratsu eta eraldatzailea gehi dezaten bultzatzen dugu.

2.3.1. adierazlea. SETEMek, beste antolakunde aliatu batzuekin batera, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen barruan, lantalde bat sortzea sustatzen du, kontsumoaren inguruan antolakundeek duten barne-koherentziari buruz gogoeta egiteko eta koherentzia handiagoa sustatzeko neurriak prestatzeko.

2.3.2. adierazlea. SETEMek modu egonkorrean parte hartzen du Euskadiko GGKEen Koordinakundeko genero-taldean, haren gogoetan eta eraginean KKAEa gehi dadila proposatzeko.

2.4. Sustatzen dugu parte hartzen dugun sareek (esaterako, Euskadiko GGKEen Koordinakundea) politiken koherentzian zentra dezaten administrazio publikoetan eragin politikoa izateko aurrera eramaten duten lana, bereziki kontsumoari dagokionez, besteak beste. Garapenerako lankidetzarekin zuzeneko loturarik ez duten beste kolektibo edo sare batzuekin aliaturik.

2.4.1. adierazlea. SETEMek parte hartzen du, EAEko administrazio publiko nagusietan kontsumoarekin lotutako politiken koherentzia bultzatzeko helburuz, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak aurrera eramaten dituen ekintzetan, bereziki Arabako ordezkartzan.

2.5. SETEM Federazioan agenda komun bat diseinatzen eta praktikan jartzen parte hartzen dugu, gehien elkartzen gaituzten gaietan bereziki.

2.5.1. adierazlea. SETEM Hego Haizeak modu egonkorrean parte hartzen du Federazioko espazio hauetan: batzarretan, Zuzendaritza Batzordean, lantaldeetan.

2.5.2. adierazlea. SETEM Hego Haizeak Federazioaren esparruan egiten diren baterako proiektu zehatzetan parte hartzen du, ekarpena eginez bai jarduerak formulatzean, bai gauzatzean.

2.6. SETEMek erosketa publiko arduratsuari buruzko eragin politikoa sustatzen du REAS Euskadiren eta Zentzuz Kontsumituen bidez.

2.6.1. adierazlea. SETEMek modu aktiboan parte hartzen du REAS Euskadik eta Zentzuz Kontsumituk erosketa publikoari buruz aurrera eramaten dituzten eragin politikoko ekintzak definitzen eta gauzatzen, SETEM ere badagoen beste espazio batzuekin sinergiak eta zubiak ezartzea berariaz bilatuta, hala nola Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin.

2.7. Parte hartzen jarraitzen dugu REAS Euskadiren, Merkatu Sozialaren, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen (batzar nagusiak, Arabako eta Gipuzkoako lurralde-batzarrak, genero-taldea), Araba, Bizkai eta Gipuzkoako bidezko merkataritzako partzuergoen, Emakumeen Mundu Martxaren, Zero Pobrezia Plataformaren, Fiareren, finantza etikoen taldearen, eta Zerga Eragozpenerako Sarearen ohiko jardueretan.

3. Helburu estrategikoa. Antolakundearen funtzionamendu koherente bat sendotzea

3.1. SETEMek pertsonen kudeaketa gardena eta ez-patriarkala daukan antolakunde bat da, barne-harremanetarako konfiantzan, errespetuan, berdintasunean eta zintzotasunean oinarrituriko espazio bat sortzen duena, pertsonak zainduta daudela.

3.1.1. adierazlea. Indarrean den Ekitatearen aldeko Planetik gauzatzeke zeuden neurriak, 2017an eta 2018an gauzatutakoak:

Aurrekontuetan eta kontabilitateko analisisian genero-ikuspegia txertatzeko garaturiko tresnak.

Maskulinitateen inguruko gogoeta/ekintzako ildo bat abian jarri eta garatzea.

Indarkeria matxisten aurkako protokoloa definitzea eta gauzatzea.

3.1.2. adierazlea. 2019-2021 aldirako Ekitatearen aldeko Plan berria 2018. urtearen bukaeran onartuta.

3.1.3. adierazlea. SETEMek pertsonen kudeaketa ez-patriarkala zertan datzan definitzen du eta neurri zehatzak sortzen ditu.

3.1.4. adierazlea. SETEMek 2018. urtean neurri-multzo bat onartzen du gure antolakundea eta lana irisgarri bihurtzeko aniztasun funtzionala duten pertsonentzat.

3.1.5. adierazlea. SETEMek urtero definitzen eta gauzatzen du barne-prestakuntzako plan bat, antolakundearen beharrezan eta boluntario eta kontratatutako pertsonal teknikoaren beharrezan arteko gurutzaketaz taxututakoa.

3.1.6. adierazlea. SETEMek, 2017ko bigarren seihilekoan, antolakundean euskararen erabilera normalizatua bultzatzeko neurriak definitzen ditu.

3.2. SETEM KKAEaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arabeko baliabide-kudeaketa bat, gardena eta ez-patriarkala daukan antolakunde bat da.

3.2.1. adierazlea. Kanpo-zerbitzuak kontratatzean eta hornidurak eskuratzean honako hauek lehenesten dira: REASEko kide diren entitateak, Euskadiko Merkatu Sozialekoak, kooperatibak, ikuspegi feministako entitateak, eta praktika agroekologikoekin bat datozen tokiko ekoizleak.

3.2.2. adierazlea. Finantza-erakundeak hautatzerakoan, FIARE lehenetsiko da aurrenik, Triodos Bank bigarrenik, eta Laboral Kutxa azkenik.

3.2.3. adierazlea. SETEMen Vitoria-Gasteizko egoitzan bederen, argindar-kontsumoa Goiener kooperatibaren bidez egingo da, hango kide baikara.

3.2.4. adierazlea. Mantendu eta areagotu egingo dira birziklatzeari, ekipamenduen bizitza baliagarria luzatzeari, paperaren eta uraren kontsumoa minimizatzeari, espazioak eta materialak zaintzeari, eta abarri lotutako neurriak

3.2.5. adierazlea. Dokumentu gehienak formatu digitalean argitaratuko dira.

3.2.6. adierazlea. Joan-etorrien % 65 gutxienez garraino publikoan egingo dira.

3.2.7. adierazlea. SETEMen jardueretarako erabiltzen diren elikagaien % 80 gutxienez tokikoak, ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak dira.

3.2.8. adierazlea. KKAEan oinarrituriko baliabideen zerrenda bat osatzea, bilerak, topaketak, afariak egiteko edo antolatzeke, opari txikiak egiteko, eta abarretarako. (Esaterako, REAS).

3.2.9. adierazlea. SETEMek, plana indarrean den bitartean, bere barneko arau-sistema aplikatuko du, haren kudeaketaren gardentasuna, egokitasuna eta kalitatea bermatzen dituen arau-sistema bat, hain zuzen.

3.3. SETEM bere gogoeta-espazioetan zer egiten duen eta nola egiten duen aztertzen duen antolakunde bat da. Gelditu, pentsatu, sentitu, ospatu eta jardun egiten du.

3.3.1. adierazlea. Urtero, asteburuko topaketa bat antolatzen da gutxienez, gogoetagai jakin bati buruzko azken jarrera bat idatziz jasotzeko.

3.3.2. adierazlea. Topaketa aurretiaz prestatzen da dauden antolakuntza-espazioetan.

3.3.3. adierazlea. SETEM urteroko jai publiko bat antolatzen du, eskerrak emateko eta lorpenak ospatzeko, oinarri soziala zein finantzaketa handitzeko ere balioko duena.

3.4. SETEM prozesuka antolatzen da, horizontaltasunaren eta parte-hartzearen araberako logika batean oinarriturik, argi definituriko rol, funtzio eta ardura bereziekin SETEM osatzen duten pertsona guztientzat. Konpartimentuen araberako logika gainditurik.

3.4.1. adierazlea. Prozesukako lanaren talde eragile bat sortzen da (Zuz. Batzordeko, boluntarioen arteko, lantalde teknikoko pertsonak).

3.4.2. adierazlea. SETEMen xedea eta balioak abiapuntu hartuta, taldeak 2017ko lehen hiruhilekoan SETEMen prozesu-mapa osatzen du, eta zein diren prozesu estrategikoak, zein funtsezkoak eta zein laguntza-prozesuak identifikatzen da.

3.4.3. adierazlea. 2017ko lehen hiruhilekoan, SETEMek antolakundearen iraunkortasunerako prozesuak abian jartzen ditu. Prozesu horietako bakoitzerako lantaldeak sortzen dira, buru den pertsona, kudeaketan diharduen lantaldea, eta parte hartzen duten pertsonak zehaztuta.

3.4.4. adierazlea. Antolakundearen iraunkortasunerako prozesu horien xedea eta gida-helburuak identifikatzen dira, bai eta adierazleak ere (prozesuen plangintza estrategikoa).

3.4.5. adierazlea. Antolakundearen iraunkortasunerako prozesuen faseak, jarduerak / ekintzak, puntu kritikoak, baliabideak, eta ardurak deskribatzen dira (prozesuen jardunaren plangintza).

3.4.6. adierazlea. Jarraipena egiteko modua identifikatzen da, eta antolakundearen iraunkortasunerako prozesuak abian jartzen dira.

3.4.7. adierazlea. Ebaluatzen da (4 hilabeteren buruan).

3.4.8. adierazlea. Prozesuak hobetzen dira.

3.4.9. adierazlea. 2017ko bigarren seihilekoan, SETEMek gainerako prozesuak hedatzen ditu.

3.4.10. adierazlea. Prozesu bakoitzerako lantaldeak sortzen dira.

3.4.11. adierazlea. Dagokion segidan, prozesu bakoitza garatzen da: plangintza (3.4.3. eta 3.4.4.), jarduna (3.4.5.), ebaluazioa (3.4.6. eta 3.4.7) eta hobekuntza (3.4.8.).

3.5. **Bazkideak** antolakundearengandik hurbil eta harekin identifikatuta sentitzen dira.

3.5.1. adierazlea. Bazkideekiko komunikazio-kanalak nola dauden berrikustea (Mailchimp, posta arrunta), harremana hobetzeko ideiarekin (urteroko batzar batera baino zerbait gehiagora gonbidatzea).

3.5.2. adierazlea. Izan nahi dugun harremana birdefinitzea.

3.6. SETEMek behar adina boluntario dauzka kopuruz eta inplikazioz, eta antolakundearen horizontaltasunean laguntzen dute.

3.6.1. adierazlea. Boluntariotza-planean jasotako lagun-egitea berrikusi, hobetu eta abian jartzea.

3.6.2. adierazlea. Boluntario berriak gonbidatzeko eta hurbilarazteko estrategia diseinatzea, praktikan jartzea, ebaluatzea, doitzea, eta berriz abian jartzea (zikloa).

3.6.3. adierazlea. Boluntarioen ahalduntzea sustatzea, aldaketa-eragile publikoak izan daitezen, metodologia ez-formal baten bidez.

3.7. SETEMek badauzka barne-komunikazio kanalak informazioa, inplikazioa, parte hartzea sustatzeko.

3.7.1. adierazlea. 2017ko lehen seihilekoan, barne-komunikazioko plan bat diseinatzen da, komunikazio-kanal eta estrategiak bereziak definiturik antolakundearekiko loturaren eta inplikazioaren arabera (boluntarioak, dohaintza-emaileak, bazkideak...). Zenbait alderdi aintzat hartzea, hala nola oinarri sozialaren fidelizazioa, lorpenak ikusgai bihurtzea, komunikazio-kanalak berrikustea (bazkideekin bereziki), bazkide egiteko prozesua protokolizatzea...

3.8. Haustura, aldaketa eta berrikuntzako prozesuaz arduratzen den lantaldeak koordinaturik, SETEMek plangintza, jarraipen eta ebaluazioko etengabeko logika bati eusten dio:

3.8.1. adierazlea. SETEMek Urteko Plangintza Operatibo bat dauka (UPO), urte bakoitzeko urtarrilean onartua.

3.8.2. adierazlea. SETEMek UPOaren tarteko jarraipen bat eta azken ebaluazio bat egiten ditu.

3.8.3. adierazlea. SETEMek, plana indarrean den bitartean, bere urteko kontuen ikuskapena aginduko du, eta halakoak, jarduera-txostenekin batera, webgunean argitaratzen dira.

3.8.4. adierazlea. SETEMek, REASEko kidea den aldetik, urtero ebaluatzen ditu bere eraginkortasun soziala eta jokabide etikoa, bere emaitza sozial eta solidarioak hobetzeko nahiz beraren jardunak konprometitutako pertsona guztiei haietaz kontu emateko dituen helburuei dagokienez.

3.8.5. adierazlea. SETEMek sendotu egin du gobernu onaren eta gardentasunaren inguruan Espainiako GGKEen Koordinakundeak finkaturiko adierazleak betetzea.

3.8.6. adierazlea. SETEMek bera kide den sareei eman egiten die sare horien jarduera eta gizarte-inpaktu erantsia ikusgai bihurtzeko helburuz eskatzen zaion informazio oro.

3.8.7. adierazlea. SETEMek tarteko ebaluazio bat egiten du plan estrategikoari buruz (2019ko bigarren seihilekoa), eta azken ebaluazio bat.

3.8.8. adierazlea. SETEMek jarraipen eta ebaluazioko prozesuen ondoriozko neurri guztiak ezartzen ditu.

4. Helburu estrategikoa. Finantzaketa-eredu iraunkorrago bat sendotzea

4.1. Kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaileari aisialdiaren ikuspuntutik heltzen dion **topaketa-espazioak** (kafetegia, liburu-denda, zinema, liburutegia, monologoak, antzerkia, truke-azokak, espazio-lagapena...) SETEMen finantzaketa pribatua gehitzen du.

4.1.1. adierazlea. Inbertsio-azterketa bat definitu eta planifikatzea, hauek jasota:

2017. urtean:

Lokala (alokairua, erosketa, kokapena, zaharberritzea, etab.).
Kudeatzeko beharrezko pertsonala (kontratatua, borondatezkoa).
Eskaria duten jarduera-motei buruzko azterketa.
Lokaleko publikoa.
"Negozio"-eredua.

2018-2020 urteetan:

Obrak.
Jarduera-programazioa.
2019. urtearen erdialdean: irekiera eta inaugurazioa.
2019rako bere kasa mantentzen da, eta 2020an superabita sortzen du SETEMen jardunean erabiltzeko.

4.1.2. adierazlea. Topaketa-espazioak oinarri soziala sortzen du SETEMentzat. Bazkideek deskontuak izan ahalko dituzte kontsumizioetan, kontzertuetan..., lokala afariak egiteko alokatzeko aukera izango dute...

4.2. SETEMek bere bazkideen oinarri soziala handitzen du: bazkideen eta dohaintzen bilaketa eguneroko eginkizun bihurtzen du (jarduerak baliatzea, ahoz ahokoa...).

4.2.1. adierazlea. SETEMen inplikaturako pertsona bakoitzak bazkide bat (edo gehiago) egitea lor dezan betetzea.

4.2.2. adierazlea. SETEMeko bazkide egiten den pertsona bat automatikoki lokaleko bazkide bihurtzen da.

4.2.3. adierazlea. Bazkide online egiteko prozesua erraztea.

4.2.4. adierazlea. Mekanismoak bilatzea, jarduera guztietan SETEMeko bazkide egiteko aukera susta dadin.

4.2.5. adierazlea. Jendea bazkide egitea errazteko materiala sortzea.

4.3. SETEMek truke ez-monetarioekin funtzionatzen du.

4.3.1. adierazlea. Bi truke ez-monetario gutxienez sortzea 2019az geroztik.

4.3.1.1. adierazlea. Sareekin (Zarensare eta REAS) trukeak egiteko aukerak aztertzen ditugu 2019an zehar.

4.3.1.2. adierazlea. Lokala truke ez-monetarioak egiteko aprobetxatzea.

4.3.1.3. adierazlea. Trukeak sortzeko aukera Gasteizko bulegoko espazioekin, eta ezaguera-trukeak ere bai.

4.4. SETEMek finantzaketa-modu berriak bilatzen ditu: *crowdfundinga*, bulegoko espazioak alokatzea...

4.4.1. adierazlea. Urtero jardueretako bat gutxienez *crowdfunding* bidez finantzatzea (esaterako: ikerketa bat).

4.4.2. adierazlea. Lokaleko espazioak alokatzea (irizpide batzuen arabera).

4.5. SETEMek urtero definitzen du baliabide publikoak lortzeko estrategia bat, eta eskatutako funts globalen % 60 gutxienez lortzen du.

5. Helburu estrategikoa. Bosgarren elementua topatzea

5.1. SETEM erreferentea da sorkuntza aktiboko metodologia eta ikuspegi feminista dituen kontsumo kritikoan.

5.1.1. adierazlea. SETEM artikuluetan agertzen da bere metodologia eta jardueren izaera berritzaileagatik.

5.1.2. adierazlea. SETEMek sorkuntza aktiboko bere metodologia partekatzen du parte hartzen duen espazioetan.

5.2. SETEMek maila guztietan aplikatzen du sorkuntza aktiboa ("kreaktibitatea"): finantzaketan, barne-egituran, harremanetan, komunikazioan...

5.3. SETEM erregalu bat gara (beldurrik gabe eta zoriontsu).

5.3.1. adierazlea. SETEM funts horretatik abiatzen da egiten duen eta parte hartzen duen guztian, ekintza humanizatuz eta positibizatuz.